



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2020KO EKAINAREN 24AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

15. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeiko ekainaren 24an, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).
Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).
Angel M^a Etxeberria Ibarguren J. (EH BILDU).
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

1.- AZKOITIKO ARAU SUBSIDIARIOEN 4. ALDAKETARI DAGOKION BEHIN BETIKO ONARTUTAKO 3. AREA "SAN MARTIN", 24. AREA "SAN JUAN" ETA 25. AREA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

“BASARTE” EREMUEI DAGOKIEN BEHIN BETIKO ONESPENAREN DEUSEZTASUN ABSOLUTUA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“GAIA: AZKOITIKO ARAU SUBSIDIARIOEN 4. ALDAKETARI DAGOKION ESPEDIENTEAREN BARRUAN BEHIN BETIKO ONARTUTAKO 3. AREA “SAN MARTIN”, 24. AREA “SAN JUAN” ETA 25. AREA “BASARTE” EREMUEI DAGOKIEN BEHIN BETIKO ONESPENAREN DEUSEZTASUN ABSOLUTUA.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2007ko ekainaren 19ko saioan behin betiko onartu zuen Azkoitiko Hiri Antolaketako Arauen Testu Bateratua (GAO 193. zk., 2007ko urriak 2).

2019ko azaroaren 27an osoko bilkurak honakoa erabaki zuen:

***“LEHENA:** Hasiera ematea Azkoitiko Arau Subsidiarioen 4. Aldaketaren baitan izapidetu den 3. Area “San Martin”. 24. Area “San Juan” eta 25. Area “Basarte” eremuen behin betiko onespeneren ofiziozko berriksupenari, hau da, 2019ko urtarrilaren 30ean hartutakio erabakiaren deuseztasun absolutua deklaratzeari helburu duena.*

***BIGARRENA:** Erabaki hau eta dagokion espedientearen helaraztea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari **dagokion txostena igor dezan, honetarako dagokion eskaera Alkateak egin beharko duelarik.**”*

2019ko abenduaren 11an Alkateak osoko bilkuraren erabakia bete zuen, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari igorri zitzaion erabakia eta espedientearen.

2020ko urtarrilaren 23ko sarrera datarekin, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak informazio gehigarria eskatu zuen.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2020ko urtarrilaren 24an jendaurreko erakusketan jarri zen Azkoitiko Arau Subsidiarioen 4. Aldaketaren baitan izapidetu den 3. Area "San Martin". 24. Area "San Juan" eta 25. Area "Basarte" eremuen behin betiko onespeneren ofiziozko berrikuspena, 30 egunez, eta ez dela alegaziorik aurkeztu.

2020ko maiatzaren 18ko sarrera datarekin, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak txostena igorri du, eta behin betiko berrikuspenaren ofiziozko berrikuspenaren aldeko irizpena eman duela.

Aintzat harturik Hirigintza AOTaren ekainaren 15eko txostena.

Kontuan harturik ofizozko berrikuspenari dagokionez Prozedura Administratibo Erkidearen 39/2015 Legearen 106 artikulua honakoa dioela:

ARTÍCULO 106. REVISIÓN DE DISPOSICIONES Y ACTOS NULOS

*2. Asimismo, en cualquier momento, las Administraciones Públicas de oficio, y previo dictamen favorable del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma si lo hubiere, **podrán declarar la nulidad de las disposiciones administrativas en los supuestos previstos en el artículo 47.2.***

Honakoa dio 47.2 artikulua:

2. También serán nulas de pleno derecho las disposiciones administrativas que vulneren la Constitución, las leyes u otras disposiciones administrativas de rango superior, las que regulen materias reservadas a la Ley, y las que establezcan la retroactividad de disposiciones sancionadoras no favorables o restrictivas de derechos individuales.

Kontuan harturik 9/2004 Legeak, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa arautzen duenak 3.1. g) artikuluan zehazten duela berau kontsultatu behar dela hurrengo kasuetan:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Administrazioaren egintzen eta xedapenen ofiziozko berrikuspena, herri-administrazioen araubide juridikoari eta administrazio-prozedura erkideari buruzkoa.

Kontuan harturik Lege berberak 20. artikuluan zehazten duela honakoa:

20. artikulua – Kontsulta-eskaera. Modua eta garaia.

1. – Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bere jarduera-eremuan dauden administrazioetatik honako hauek egingo dizkiote kontsultak:

- a. Eusko Jaurlaritzako sailburuek.*
- b. Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak.*
- c. Tokiko korporazioetako lehendakariak.*

2.1 d) artikuluan aipatzen diren entitateen ordezkari den organoko titularrak.

2. – Kontsultetarako baldintzak:

- a. Aholkua eskatzen duen agintaritzaren erabaki baten bidez egingo dira kontsultak, eta agintaritza-egintzek formaren aldetik izan ohi dituzten baldintzak bete behar ditu erabaki horrek.*
 - b. Kontsultarako erabili den lege-agindua adierazi behar da erabakian, eta, labur bada ere, hori aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak azaldu behar dira.*
 - c. Administrazio-espeditentea osatzen duten agiri guztien kopia konpultsatua eta agirion zerrenda zenbakitua erantsi behar zaizkio kontsultari.*
- 3. – Araua onartu edo ebazpena edota erabakia hartu baino justu lehenago egingo dira kontsultak. Interbentzio-kontrola, berriz, berorri dagokion arautegi bereziaren arabera burutuko da.*

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Lurralde Antolaketa, Ingurumena, Landa Garapena, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRIZPENA

LEHENA: Erabat deusez deklaratzea 2019ko urtarrilaren 30ko osoko bilkuraren erabakia, Azkoitia Udalerriko Antolaketarako Araudiaren Testu Bateginaren 4. Aldaketa Zehatza, "San Juan" 24. eremuari, "Basarte" 25. eremuari eta "San Martin" 3. eremuari dagokiena behin betiko izaeraz onartzea erabaki zuena.

BIGARRENA.-"San Juan" 24. eremuari, "Basarte" 25. eremuari eta "San Martin" 3. eremuei dagokien Azkoitia Udalerriko Antolaketarako Araudiaren Testu Bateginaren 4. Aldaketa Zehatza, 2018ko maiatzaren 30 datako behin behineko onarpen fasean uztea, Osoko Bilkurak, bere kasuan, berriz ere behin betiko onartu beharko dituelarik indarrean sar dadin.

Azkoitian 2020ko ekainaren 18an

Bozketa: Alde: Javier Zubizarreta, Imanol Arrizabalaga, Ana Azkoitia, Itziar Joaristi, Angel Etxeberria, Janire Igoa eta Jose Joakin Etxaniz."

Ana Azkoitia andreak azaldu du 2019ko azaroko plenoan erabaki zela behin betikoz onartuta zeuden hiru eremutan anulatzea Arau Subsidiarioen 4. aldaketa. Ofizios erabaki zela esan du, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa falta zelako. Hasieraz onartu zen plenez eta ondoren COJUARA bidali zen, COJUAK onespina eman duenez pleno honetara ekarri dute behin betiko onespeneren deuseztasun absoluta emateko.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: "2019ko azaroko udal bilkuran, ingurumen txostenak falta zirela ohartu ondoren, 4.aldaketaren deuseztatzeari hasiera eman genion eta orain ere behin betiko deuseztatzearen alde bozkatuko dugu. Orduan, etorkizunean izan genitzakeen arazoak ekiditeko deuseztatze honen alde azaldu ginen, baina ez genuen sekula pentsatuko izan ditugun arazoak izango genituenik. Beraz, eskerrak prozesu hau abiatu genuen eta horrela Azkarateko instalazioaren eraikinean herriak parte hartzeko posibilitatea izan duen, bestela eraikuntza hori gelditzea asko zailduko baitzen."



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ana Azkoitia andreak Jose Joakin Etxaniz jaunari zuzenduz dio honek ez duela harekin zerikusirik, hura beste eremu bat dela.

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Iraitz Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko Arau Subsidiarioen 4. aldaketari dagokion 3. area "San Martin", 24. area "San Juan" eta 25. area "Basarte" eremuei dagokien behin betiko onespeneren deuseztasun absolutua onartzea aho batez erabaki du.

2.- 23 H.E. UMANTSORO EREMUAN, XUBI ENPRESAREN LURSAILAREN XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

"LURRALDEA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

GAIA: 23 HE UMANSORO EREMUAN, XUBI ENPRESAREN LURSAILAREN XEHETASUN AZTERLANAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

I.- TXOSTEN TEKNIKOA

Azkoitiko Udaleko Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuetako Departamentuko Arduradunak ondoan islatzen den txostena aurkeztu du:

Txosten hau idatzi da, XUBI LARGE SL enpresak Azkoitiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 23 Umansoro Eremuari buruz aurkeztutako Xehetasun Azterlanaren jendaurreko azalpenaren epealdia amaitu ondoren.

2020ko otsailaren 3an, Alkatearen Dekretu bidez, XUBI LARGE SL enpresak aurkeztutako Xehetasun Azterlana hasiera batean onetsi zen.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Horrekin batera, 2020ko otsailaren 14ko idatzi bidez, 826 erregistro zenbakiarekin, Esteban Sudupe Alberdik espediente horren titularra aldatzeko eskatu zuen, sustatzailea XUBI LARGE SL izatetik XUBI ENGRANAJES SL izatera pasatzeko.

2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari Buruzkoak 98. artikuluan ezarritako izapideari jarraikiz, dokumentua hasiera batean onetsi zen eta jendaurrean jarri zen hogeie egunez, 2020ko otsailaren 17ko 31. zenbakiko GAOn argitaratu zenez.

Epealdi horretan inongo alegaziorik aurkeztu ez zenez, izapidearekin jarraitzea proposatu zen.

I. AURREKARIAK

Aurkeztutako dokumentuak xedapen hauek jasotzen ditu aurrekarietan:

Xubi Taldea enpresa taldeak tradizio luzea du industriaren munduan eta Azkoitian (Gipuzkoa) du egoitza. 1956an sortu zen eta azkoinak fabrikatzen hasi zen. Lau urte geroago, engranajeak fabrikatzen hasi zen eta, gaur egun, gero eta jarduera sorta zabalagoa egiten du.

Xubi Taldearen egoitza nagusia Umansoro industrialdean dago eta, gainera, Oinartxo industria sektoreko V5 eta V4 lurzatiak jabea da. Gaur egun, hirigintzako prozesu batean sartuta dago, LKS Krean enpresaren laguntzarekin, bi lurzatiak fusionatu eta ondoriozko lurzatiaren antolamendu xehatua egiteko.

Duela gutxi, Xubi taldeak Umansoroko plantaren ondoko eraikinak eskuratu zituen, haietan nabe berri bat eraikitzeko, eta horretarako egin zuen Xehetasun Azterlan hau. Horrek guztiak erakusten du hazi egin nahi duela, Azkoitiko udalerrian bere bezeroen eskariei erantzuteko.

Xehetasun Azterlan hau A-23 Umansoro lurzati berrantolatzeko idatzi da, proiektuak Azkoitiko Udalaren oniritzia eta udaleko zerbitzu tekniko guztien adostasuna lortu ondoren.

II.- ESPEDIENTEAREN XEDEA ETA DESKRIBAPENA

Lurzoruari eta Hirigintzari Buruzko 2/2006 Legeak ezarritakoari jarraikiz, hau da Xedapen Azterketen helburua:

– Xehetasun-azterketak.

1.– Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun- azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun- azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela.

2.– Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:

d. Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.

e. Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

f. Urbanizatzeko-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatua egongo dira jasota.

3.- Xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoko b) letran xedaturikoari ezer kendu gabe.

- Agiriak.

Xehetasun-azterketen edukia agiri hauetan egongo da jasota:

- d. Memoria bat, bi gauza hauek justifikatzeko: alde batetik, aurreko artikuluko 2. paragrafoan ezarritako legezko mugak errespetatu egin direla, eta bestetik, bere kasuan, plan orokorreko edo garapen-plangintzako zehaztapenak osatu edo egokitu egin behar direla.
- e. Informazio-planoak.
- f. Antolamenduaren planoak.

Jarduketa honek bi helburu ditu. Batetik, enpresaren interesak batzen ditu, lurzatie geometrikoki erregularizatzen duelako, eta, bestetik, inguruko eremu publikoa hobetzen du, dagoen bidea zabaltzen eta gainean dituen hegala ezabatzen dituelako.

Laburbilduz, honako hauek zerrendatzen ditu dokumentuak:

Aurrekarien atalean azaldu den moduan, Xubik Umansoroko plantaren ondoko eraikinak eskuratu ditu duela gutxi, bere ekoizteko gaitasuna handitzeko nabe berria eraikitze aldera. Alabaina, eskuratutako eraikinek multzo heterogeneoa osatzen dute tipologiari eta bolumetriari dagokienez (lokal industrialak eta merkataritzakoak, etxebizitzak lehen solairuan...) eta gaur egungo egoeran ez dute aukera ematen jardura industrialak beharrezkoak diren baldintzetan gauzatzeko.

Xubik eraikin erregularragoak behar ditu, zeinak aukera emango dien nabe osoan zehar garabi nasak ezartzeko, eta askoz ere altuagoak izan behar dira, ez soilik eskuratutako eraikinak, baita gaur egun enpresak Umansoron dituen nabeak ere.

Bestalde, dagoen bide publikoa oso estua da eta lehenengo solairuan dauden etxebizitzak hegala kalearen gainean daude; horrek guztiak estutasuneko eta espazio faltako sentazioa areagotzen du. Jakin ahal izan dugunez, kamioiak bide horretatik sartu eta irteten dira, inguruko enpresara doazenean (bereziki Ibarria), eta arazoak izaten dituzte etxebizitzak hegalekin, bolumen handiko piezak edo elementuak eramaten dituztenean.

Proposatutako antolamenduak interes pribatu eta publikoak elkartu nahi ditu, bi alderdientzat onuragarria izango den konponbidea bilatzeko. Xubik nabe erregularra lortuko du eta eremu publikoa zabaltzeko egingo da, tokirik estuenerako sekzioa asko hobetuko delako.

Proposatutako eta dokumentu honen antolamendu planoetan islatutako konponbidea egiten bada, partzela pribatua eta eremu publikoa erregularizatuko dira, eta gaur egun duten makurdura konponduko da. Konponbide horri esker, eremu publikoaren sekzioa zabalduko da tokirik estuenerako, eta 6,78 metro izatetik



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

10,4 metro izatera igaroko da, kalearen beste aldean dagoen espaloia ertzetik kontaktzen hasita.

Galtzada ere zabalduko da, 5,28 metrotik 6,00 metrora, gaur egun eraikinaren makurduraren ondoan dauden zeharkako aparkalekuen ordeztu lerroko aparkalekuak jarriko dira, eta espaloia 1,5 metrotik 2 metro izatera igaroko da. Aparkatzeko plaza bat irabaziko da. Atzera eramateari eta hegala ezabatzeari esker, ikus eremua zabalduko da eta bolumen handiko ibilgailuentzat dauden oztopoak ezabatuko dira. Eremu publikoa 27 m² handituko da; agian ez da oso zabaltze esanguratsua gainazal osoarekin alderatuta, baina hobekuntza nabarmena dakar, aldaketaren kokapen fisikoagatik.

Eremu publikoa zabaltzeko, eraikin pribatuaren oinplanoko okupazioa murriztu behar da. Alabaina, gainazal galera txiki horrek hobekuntza handia ekarriko du funtzionaltasunari eta produktibitateari dagokionez.

Nahiz eta ez den aldatzen eremu publikoaren mugaketa eremu horretan, Xubik Urola ibaiaren ondoan duen lurzatiaren alboko espaloian ere esku hartzea aurreikusten da. Espaloi hori gaur egungo eraikina eraisteko eta erakin berria zimendatzeko lanen eraginpean egongo da, eta berriz jarriko da, zabalera 2 metrora handitu ondoren.

III.- ARAUDI APLIKAGARRIA

UMANSORO 23 HE hiri lurzoru moduan sailkatuta dago, jarduera ekonomikoaren barruan, Azkoitiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginean. Aplikagarria zaion dokumentazioa:

- Azkoitiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bategina, 2007ko ekainaren 19ko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onetsia eta GAOn argitaratua, 2007ko urriaren 2an, eta testu horren aldaketak.
- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea:
 - o Xehetasun Azterketak. 73. art.
 - o Agiriak. 74. art.
 - o Xehetasun Azterketak izapidetu eta onartzea: 98. art.
 - o Hirigintzaren antolamendu xehatua. 56. art.
 - o Erkidegoak hirigintzako ekintzan sortutako gainbalioetan parte hartzea. 27. art., azaroaren 28ko 11/2008 Legeak aldatua.
 - o Lizentzia-emateak etetea. 85. art.
 - o Hiri-lurzoru finkatugabearen gutxieneko estandarrak eta zuzkidurak: 79.1 art.
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa:
 - o Toki-zuzkiduren estandarrak. Hiri Lurzoru finkatugabea: 17. art.
- 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, Hirigintza Ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen partaidetza aldatzeari buruzkoa.
 - o Artikulu bakarra.
- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
 - o Alkatearen eskumena dokumentua onartzeko: 21.1.j art.
 - o Udalbatzaren eskumena, behin betiko onartzeko: 22.2.c art.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IV. KONTSIDERAZIO TEKNIKOAK

2020ko otsailaren 3an, Alkatearen Dekretu bidez, XUBI LARGE SL enpresak aurkeztutako Xehetasun Azterlana hasiera batean onetsi zen.

Horrekin batera, 2020ko otsailaren 14ko idatzi bidez, 826 erregistro zenbakiarekin, Esteban Sudupe Alberdik espediente horren titularrak aldatzeko eskatu zuen, sustatzailea XUBI LARGE SL izatetik XUBI ENGRANAJES SL izatera pasatzeko.

2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari Buruzkoak 98. artikuluan ezarritako izapideari jarraikiz, dokumentua hasiera batean onetsi zen eta jendaurrean jarri zen hogeitaz egunez, 2020ko otsailaren 17ko 31. zenbakiko GAOn argitaratu zenez.

Epealdi horretan inongo alegaziorik aurkeztu ez zenez, izapidearekin jarraitzea proposatu zen.

V. ONDORIOAK

Aurkeztutako Xehetasun Azterlanak oro har betetzen du aplikagarria zaion Hirigintzako Araudia; beraz, ez dago aldeko txostena egiteko eragozpen teknikorik. Jendaurrean jartzeko epea amaitu ondoren, eta alegaziorik aurkeztu ez denez, teknikari

honek izapideari jarraitutasuna ematea eta berori onestea proposatzen du, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

PROPOSAMENA:

Lehenengoa.- Behin betiko onestea Azkoitiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 23 Umansoro Eremuari buruz egindako Xehetasun Azterlana, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

Bigarrena.- XUBI ENGRANAJES S.L. enpresa berorren sustatzaile izendatzea.

Hirugarrena.- Edozein jarduketa egiteko edo baimen eskatzeko, Udal Txosten Teknikoaren VI. apartatuan jasotako baldintza bereziak bete beharko dira.

VI.- BALDINTZA BEREZIAK

1. GI-631 errepidearen eragina: eraikina ordezkatzeko den tokia horretarako ezarritako gutxieneko bakartokien eraginpean ez dagoen arren, errepideetako poliziaren eremuaren eragina izango luke mugatutako eremuak (saihesbidearen inguruan); horregatik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Departamentuari baimena eskatu beharko zaio, lanak hasi aurretik.

2. Babeseko hegala hego-ekialdeko fatxadan: Azkoitiko Arau Subsidiarioen 93.3.f artikuluan, sarbideen gaineko hegal apaingarriak eta babesgarriak ezartzeko aukera soilik jasotzen da, eta elementu horiek fatxadaren lerroaren gainetik irten daitezke. Horregatik, kontuan hartuta sarbideak elkarrengandik hurbil daudela, logikoa dirudi guztiak estaltzeko elementu bat planteatzea, eta guztiek diseinu apaingarri bera izatea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hori dela eta, aurkeztutako dokumentazioa ikusita, teknikari honek uste du konponbide hori egingarria dela, lanak hasi aurretik behar bezala justifikatzen bada.

3. URA agentziaren administrazio baimena: ubideen poliziaren eremuan edozein obra edo lan egiteko, ibai arroko erakundearen aurretiazko baimen administratiboa beharko da. Baimen horrek ez du ezertan eragotziko Administrazio Publikoen organoek eman beharreko beste ezein baimen (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9.4 artikulua. Erregelamendu hori apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu zen, eta urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen).

4. Urbanizazio obra osagarriak: dokumentuan jasotako justifikazioari jarraikiz, zenbatesten da urbanizazio obra publikoen kostua 2/2006 Legearen 195. artikulua ezarritakoa baino % 5 txikiagoa dela; beraz, jarduketa isolatua da. Aurkeztu beharreko etxegintza proiektuak aipatutako urbanizazioan gauzatu behar diren jarduketak jaso eta zehaztu beharko ditu, eta bertan egin beharreko obra osagarri buruzko Eranskina izan beharko du.

5. Solairuarteak eta ganbarak: dokumentuak adierazten duenez (15. or.), teilatuko terrazan «hartara heltzeko aukera ematen duten elementu eraikiak» ezarri ahalko dira, «bezeroei arreta emateko erabil daitezkeen toki modura

erabili daitezkeen». Horretarako, sarbide elementuak teilaturako itteeratzat hartuko dira eta hertsiki beteko dira Arau Subsidiarioetan horiei buruz ezarritako zehaztapenak; hala, ez dira solairuarte edo ganbaratzat hartuko.

Bere eragina izan dezan,

Azkoitian, 2020ko martxoaren 10ean.

Udal Arkitektoa - Arturo Garate Zubizarreta

II.- TXOSTEN JURIDIKOA

Udal Idazkariak, bere aldetik, ondoko txostena/ebazpen proposamena aurkeztu ditu:

Martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d) 7 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eta Xubi Large SL enpresak 23 Umansoro Eremuari buruz egindako Xehetasun Azterlana onesteko aurkeztutako onarpen espedienteari dagokionez, honako txosten hau egin da:

TXOSTENA

LEHENENGOA.- LKS Krean enpresako langile Marco Segurola jaunak Xubi Large SL enpresaren izenean 23 Umansoro eremuari buruz aurkeztutako Xehetasun Azterlana hasiera batean onetsi zen 2020ko otsailaren 3an, Alkatearen Ebazpen bidez, eta jendaurreko informazioaren izapidean jarri zen hogeiei egunez, Gipuzkoako Lurralde



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Historikoaren Aldizkari Ofizialean (31. GAO, 2020ko otsailaren 17koa) eta tirada handieneko egunkarian (2020ko otsailaren 18ko DV) argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

BIGARRENA.- Jendaurrean ikusgai egon den bitartean, ez da alegaziorik aurkeztu. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak ezarritako administrazio epeen etenaldiak eragin dio epealdi horri, aipaturiko datan hasiera izan zuenak, eta 2020ko ekainaren 1era arte iraun duenak, non berriro abiarazi ziren administrazio epeak. Horrenbestez jendaurreko 20 lanegunetako epea 2020ko ekainaren 2an amaitu da.

HIRUGARRENA.- 2020ko otsailaren 14ko idatzi bidez, 826 erregistro zenbakiarekin, Esteban Sudupe Alberdik espediente horren titularra aldatzeko eskatu zuen, sustatzailea XUBI LARGE SL izatetik XUBI ENGRANAJES SL izatera pasatzeko.

LAUGARRENA.- Hirigintzako Departamentuko buruak aldeko txostena egin zuen 2020ko martxoaren 10ean, eta honako hau proposatu zuen:

PROPOSAMENA:

Lehenengoa.- Behin betiko onestea Azkoitiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 23 Umansoro Eremuari buruz egindako Xehetasun Azterlana, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

Bigarrena.- XUBI ENGRANAJES S.L. enpresa berorren sustatzaile izendatzea.

Hirugarrena.- Edozein jarduketa egiteko edo baimen eskatzeko, Udal Txosten Teknikoaren VI. apartatuan jasotako baldintza bereziak bete beharko dira.

Proposamen horren ondoren, baldintza bereziak zehaztu ziren.

Ulertuta kasu honetan bete egin direla Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 98. artikuluan horrelako dokumentuentzat ezarritako izapideak (martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak bertara bidaltzen duena, bere 33. artikulua arabera), bai eta Hirigintzako Departamentuaren buruaren 2020ko martxoaren 10eko txostenean eta Idazkaritza honek aipatutako dokumentua onesteko hasieran egindako



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

proposamenaren harira igorritako txostenean (2020ko urtarrilaren 29an) zehaztutako gainerako araudi aplikagarria ere.

Eta ulertuta aipatutako txostenetan Xubi Large SL enpresaren izenean eta 23 Umansoro eremuari buruz aurkeztutako Xehetasun Azterlanari buruz egindako kontsiderazio juridikoek alegaziorik ez dutela izan eta, beraz, erabat baliodunak direla.

Balioduntzat emanda Hirigintzako Departamenduko buruak proposatutako sustatzaile aldaketaren onarpena, izapideari jarraitutasuna ematea eta berori onestea proposatzen da, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

Ondorioz, eta kontuan hartuta aurrekariak eta azaldutako kontsiderazioak, egokia deritzogu aztertutako espediente Udalbatzaren iritzipean jartzea, behin betiko onesteko eskumena duen organoa den aldetik, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak 22.2.c artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Lurralde Antolaketa, Ingurumena, Landa Garapena, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak

Hori horrela, honakoa onartzea proposatzen da:

Lehenengoa.- Behin betiko onestea Azkoitiko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 23 Umansoro Eremuari buruz egindako Xehetasun Azterlana, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz.

Bigarrena.- XUBI ENGRANAJES S.L. enpresa berorren sustatzaile izendatzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan tiradarik handiena duen egunkarian argitara dezaten agintzea, bertan jasotako hirigintzako arauekin batera. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiari behin betiko onarpenaren komunikazioa igorriko zaio, bai eta behin betiko onetsitako tresnaren ale baten kopia autentikatua



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ere, berori osatzen duten plano eta dokumentuak Udaleko idazkariak behar bezala bideratu ondoren; halaber, izapidetutako espediente osoaren kopia igorriko zaio, erregistratu eta gorde dezan.

Laugarrena.- Edozein jarduketa egiteko edo baimen eskatzeko, Udal Txosten Teknikoaren VI. apartatuan jasotako baldintza bereziak bete beharko dira.

Lurraldea Batzordeak, 2020ko ekainaren 18an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Imanol Arrizabalaga, Ana Azkoitia, Janire Igoa eta Jose Joakin Etxaniz.

ABSTENTZIOAK: Angel Etxeberria eta Itziar Joaristi.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du Umantsoro eremuan, Xubi enpresak aurkeztutako xehetasun azterlanari hasierako onespina Dekretuz eman zitzaiola. Espedientea jendaurreko epea amaitzeko bi egun falta zirela, alarma egoera ezarri zela esan du, eta orain epeak berrarabiatu direnean bi egun egon dela jendaurrean. Aipatutako epean alegaziorik egon ez denez, orain plenoari dagokiola behin betikoz onartzea esan du amaitzeko.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Herriarentzat kalterik ez duela ekarriko dirudi eta industria-gune horren sarrera ere zerbait txukunduko dela, beraz alde bozkatuko dugu.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Iraitz Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 23 H.E. Umantsoro eremuan, Xubi enpresaren lursailaren xehetasun azterlana behin betiko onartzea aho batez erabaki du.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3.- GAZTEEN ALOKAIURUAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK IZAPIDETZEKO AZKOITIKO UDALA ETA AZKOITIA LANTZEN, S.A.REN ARTEKO HITZARMENA ONESTEA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

GAIA: AZKOITIA LANTZEN S.A.: ALOKAIURUA SUSTATZEKO LAGUNTZAK IZAPIDETZEKO HITZARMENA BERRITZEA

Irizpen honen bitartez proposatzen da Azkoitia Lantzen, S.A sozietatearekin eranskinean datorren hitzarmena sinatzea, sozietate honek aurrera eraman ditzan bertan zehaztutako egintzak *Azkoitiko udalerrian alokairu soziala bultzatzeko laguntzen eta Azkoitiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzen izapidetzeen inguruan.*

Jarraian transkribatzen da Idazkariaren txostena gaiaren aurrekariak eta azterketa juridikoa azaltzen dituena.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2015eko urtarrilaren 29an Udalbatza Osoak honakoa erabaki zuen, besteak beste:

- **LEHEN.-** *Informazio publikoko izapidearen barruan Azkoitiko udalerrian alokairu soziala bultzatzeko laguntzen programa arautzen duen Ordenantzari Gipuzkoako Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Federazio Koordinatzaileak (Elkartu) aurkezturiko alegazioa onartzea, irizpenean jasotako aurrekarien terminoetan.*

- **BIGARRENA.-** *Azkoitiko udalerrian alokairu soziala bultzatzeko laguntzen programa arautzen duen Ordenantza behin betikoz onartzea.*

o

2015eko otsailaren 10ean, Ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 26. zk.an argitaratu zen, eta indarrean jarraitzen du orain arte.

Egun bizi dugun egoera dela eta, alde batetik, diru-laguntza linea honetan eskaera gutxi daudela kontuan izanda, bestetik, eta Udala diru-laguntzen inguruan egiten ari den lanketa orokorra dela medio (oinarri orokorren idazketa lanak eta espezifikoen berrikuspen eta bateratze lanak) diru-laguntza linea honen deialdia atzeratu egingo dela aurreikusten da, baina Azkoitiko Udalak asmoa du urtean zehar egiteko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BIGARRENA.- Azkoitiko udalbatza plenoak, 2015eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, ondoko ebazpen hauek hartu zituen, besteak beste:

LEHENA.- Azkoitiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarrietako Ordenantza erregulatzailerak hasieraz onartzea, diktamen honen eranskinean jasotzen den testuaren arabera.

BIGARRENA.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jarzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Azkoitiko Udalaren web orrian argitaratzea.

Ordenantzari zegokion espedientea informazio publikoan jarri ondoren, inolako erreklamaziorik ez zen aurkeztu. Hots, 2015eko apirilaren 8an, Ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 64. zk.an argitaratu zen, eta indarrean jarraitzen du orain arte.

HIRUGARRENA.- Ordenantzaren aplikazioak sorturiko arazoak ikusita, eta haien konpontzeko asmoarekin, udalbatza plenoak, 2017ko otsailaren 22an egindako bilkuran, hainbat aldaketa egitea onartu zuen, ondoko helburuekin:

- vi. Bizikidetzaren unitatearen gutxieneko sarrerak finkatzea, batez ere iruzur fiskalari aurre egiteko.
- vii. Udalaren ikuskaritza-ahalmenak, eta korrelatiboki, onuradunen betebeharrak arlo horretan, zehaztea.
- viii. Dirulaguntza aldatzeko edo galtzeko kasuak arautzea.

Informazio publikoko epea iragan eta inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu ezenez, Ordenantzaren behin-betiko testua 2017ko maiatzaren 2an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Ordenantzarekin batera, 2017ko diru-laguntzak emateko deialdia argitaratu zen egun berean.

LAUGARRENA.- Laguntza hauen izapidetzeak, udalean dagoen lan-karga administratiboa areagotuko du, eta bertan dauden baliabideak murriztu dira. Bestaldekik, aurrekontu eta pertsonalaren arloetan indarrean dagoen legeriak ezartzen dituzten mugek asko zailtzen dute pertsonal berriaren hautaketa zeregin hauetarako.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BOSGARRENA.- Azkoitiko udalak, Azkoitia Lantzen S.A. udal sozietatea 1987ko azaroaren 23an sinatutako eskritura publiko bidez sortu zuen eta haren Estatutuak 1997ko otsailaren 3an formalizatutako eskritura bidez egokituak izan ziren.

Txosten honek oinarritu nahi duen irizpenaren bitartez, 2019ko maiatzaren 23an sinatutako hitzarmenean adostutako kudeaketarekin jarraitzea proposatzen da, azken honek izapidetzeko gazteen alokairua sustatzeko eta alokairu soziala bultzatzeko Azkoitiko udalak 2020ko ekitaldirako onarturiko laguntzak, beti ere administrazioari dagozkion eginkizun eta ahalmenak eskuordetu gabe.

AZTERKETA JURIDIKOA

LEHENA. HITZARMENEI DAGOKIEN ARAUDIA

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa onartzen duenak, besteak beste, honela arautzen ditu hitzarmenak:

47. Artikuluak honakoa dio:

1. Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas **entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.**

(...)

Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público.

2. Los convenios que suscriban las Administraciones Públicas, los organismos públicos y las entidades de derecho público vinculados o dependientes y las Universidades públicas, **deberán corresponder a alguno de los siguientes tipos:**

(...)

c) Convenios firmados entre una Administración Pública u organismo o entidad de derecho público y **un sujeto de Derecho privado.**

48. Artikuluak honakoa dio:

1. Las Administraciones Públicas, sus organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes y las Universidades públicas, **en el ámbito de sus**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

respectivas competencias, podrán suscribir convenios con sujetos de derecho público y privado, sin que ello pueda suponer cesión de la titularidad de la competencia.

3. La suscripción de convenios **deberá mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública** y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

50. artikulua honakoa dio:

1. Sin perjuicio de las especialidades que la legislación autonómica pueda prever, será necesario que el convenio se acompañe de una memoria justificativa donde se **analice su necesidad y oportunidad, su impacto económico, el carácter no contractual de la actividad en cuestión, así como el cumplimiento de lo previsto en esta Ley.**

Beraz, laburbilduz, 40/2015 Legeak honako baldintzak eskatzen ditu Azkoitiko Udala bezalako toki erakundeek eta arlo pribatuan jarduten duten erakundeen arteko hitzarmenak sinatzeko:

6. **Helburu komunak lortzea ahalbidetzea, kudeaketa publikoaren efizientzia eta baliabideen erabilera partekatua erraztuz**
7. **Erakundeek beren eskumenen barruan jardutea**
8. **Kontratu izaerarik ez izatea**
9. **Eskumenen titularitatean aldaketarik ez ematea.**

10. **Aipatutako a) eta b) puntuei dagokionean honakoa adierazi behar dugu** (Helburu komunak lortzea ahalbidetzea, kudeaketa publikoaren efizientzia eta baliabideen erabilera partekatua erraztuz eta erakundeek beren eskumenen barruan jardutea):

Azkoitia Lantzen, S.A. sozietatearen xedea honakoa da:

Sozietatearen xedea da **era guztietako zerbitzuak sustatzea, antolatzea eta urbanizatzea, eta erabilgarritasun publiko edo pribatua izan dezaketen etxebizitzak, eraikin industrialak, zerbitzuak eta komunitateko zuzkidurak sustatzea, proiektatzea, eraikitzea, erostea, saltzea edo beste modu batean lagatzea eta kudeatzea, betiere AZKOITIAren eta azkoitiarren onurarako.**

Era berean, haren xede soziala izango da, Sozietate Urbanizatzaile gisa jarduteaz gain, Birgaitzeari dagokiona, Birgaitze Area Integratuetan Birgaitze Plan Bereziatiko zehaztapenak eginez eta horiek hobeto egikaritzuz.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Era berean, Azkoitiko Udalak honako eskumenak ditu apirilaren 14ko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 17. Artikuluaren arabera:

- Etxebizitzen plangintza, programazioa eta kudeaketa
- Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina
- Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Hitzarmen honek jasotzen dituen egintzak, aurrez zehaztu legez, Azkoitiko bi diru-laguntza lerroren kudeaketaren ingurukoak dira. Diru-laguntza hauek erregulatu dituzten ordenantzek arrazoiaren azalpenetan honako aipamenak jasotzen dituzte, diru-laguntzekin lortu nahi diren helburuen inguruan:

Azkoitiko Udalerrian alokairu soziala bultzatzeko laguntzen araudiak honakoa dio:

“Azkoitiko Udalak udalerrian hutsik dauden etxebizitzak alokairu soziala bultzatu nahi du egitasmo honen bitartez. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Bizigune eta Asap programak osatu nahi ditu (...) (Azkoitia Lantzen-ek ematen du programa hauen inguruko informazioa eta hein batean kudeatzean ditu horien inguruko eskaerak)

- Azkoitiko Udalak zehazki honako helburuak lortu nahi ditu programa honekin:
- Oinarrizkoa den etxebizitza eskubidea bermatzen lagundu
- Hutsik dauden etxebizitzak alokairu soziala bultzatu
- Etxebizitzak eraberritzea bultzatu eta herriko ekonomia suspertu
- Etxebizitzetan eta orokorrean egoitza-erakinetan irisgarritasuna bermatzea

Horretarako hainbat diru-laguntza eman nahi die hutsik dauden etxebizitzak jabeek azken horiek bere jabetzakoak diren higiezinak alokatzen jarri ahal ditzaten; hala nola obrak egiteko edota Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiria lortzea sortarazten dituen gastuei aurre egiteko”

Azkoitiko Herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituen ordenantza erregulatuak honakoa dio:

“Azken helburu bezala du:

- Bereziki pertsona gazteei laguntzea, euren emantzipazio bidean eta helduen mundura sartzeko prozesuan
- Modu orokorrean Azkoitiko herrian alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea
- Arkitektura oztopoak ezabatzeko indarrean dagoen araudiak ezarritako irisgarritasun baldintzak betetzen dituzten alokairuko etxebizitzak eskuratzea sustatzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ondorioz, justifikatuzat jotzen da, alde batetik, hitzarmen honen objektu diren egintzak, aipatutako diru-laguntzen izapidetzeei lotuta dauden heinean, bi erakundeen eskumenekoak direla eta beren helburuei erabat lotuta daudela.

Bestetik, hitzarmen honen bidez baliabideen erabilpen efizienteago bat egiten dela, etxebizitzaren kudeaketarekin zerikusia duten gaien inguruko informazio guztia Azkoitia Lantzen, S.A. ko pertsonalaren esku utziz.

Era honetan lortzen da, etxebizitzaren kudeaketarekin zerikusia duten gaien inguruko informazio osoa (bai Azkoitiko Udalak ematen dituen diru-laguntza hauen ingurukoa, bai eta Eusko Jaurlaritzak izapidetzen dituen diru-laguntza edo kudeaketen inguruko informazioa, hala nola, Bizilagun, Etxebide, Bizigune, Birgaitze diru-laguntzak etab.) Azkoitia Lantzen S.A. ko pertsonalak ematea. Horrela lortzen da zerbitzu hauen espezializazioa eta herritarra leku bakar batera joatea etxebizitzaren kudeaketarekin zerikusia duten gai guztiak izapidetzerako. Ondorioz, bi erakundeen zerbitzuen arteko sinergiak lortzen dira, herritarra era oso eta egokiagoan informatzea lortuz.

c) puntuaren betetzearen inguruan (kontratu izaerarik ez izatea):

9/2017 Legeak, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituenak, honakoa dio:

2. artikulua:

*1. Son contratos del sector público y, en consecuencia, están sometidos a la presente Ley en la forma y términos previstos en la misma, **los contratos onerosos**, cualquiera que sea su naturaleza jurídica, que celebren las entidades enumeradas en el artículo 3.*

*Se entenderá que **un contrato tiene carácter oneroso en los casos en que el contratista obtenga algún tipo de beneficio económico, ya sea de forma directa o indirecta.***

Aipatu behar dugu, hitzarmen honen objektu diren egintzek ez dutela kontraprestaziorik, hau da, Azkoitia Udalak ez diola ordainketarik egiten Azkoitia Lantzen, S.A. sozietateari Azkoitiko Udalaren diru-laguntza deialdien barruan egin beharreko lanak egiteagatik, eta egiteko hauek burutzeak ez dituela aldatzen Azkoitia Lantzen, S.A. enpresak jasotzen dituen diru-sarrerak.

Beraz, hitzarmen honen objektu denak kontratu izaerarik ez duela esan dezakegu eta horrela, puntu hau betetzen dela adieraz dezakegu.

d) puntuaren betetzeari dagokionez (eskumenen titularitatean aldaketarik ez ematea)

Hitzarmenaren seigarren hizpaketan zehazten da honakoa:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Hitzarmen honek ez dakar ez eskumenaren titulartasuna, ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, Azkoitiko Udalaren ardura izango da egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.

Aipatutako 40/2015 Legeaz gai, 9/2017 Legeak ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak, arautzen ditu hitzarmenak, administrazio publiko eta botere esleitzaille izaera duen erakunde pribatuen artean burutzen direnak.

Azkoitia Lantzen S.A. erakundea botere esleitzaillea da.

Botere esleitzaille izaerari dagokion araudia berdin mantendu da 3/2011 Errege Dekretu Legegilean eta 9/2017 Legean, eta hainbatetan zehaztu izan da Azkoitia Lantzen, S.A.ren botere esleitzaille izaera, besteren artean, 2012an Txalonerrekako 8 partzelaren lizitazioa prozeduran, __2009an Eginu Berri zabortegiko lizibiatuen tratamenduari zegokion kontratazio prozedura atera zenean eta 2013an, Elkargune eta Ugarteigarango estali gabeko igerilekuen azalera eskubideen eskualdatzeari lotutako espedientean.

9/2017 Legeak 3.3 artikuluan botere esleitzailleari ematen dion definizioa honakoa da:

3.3. Se considerarán poderes adjudicadores, a efectos de esta Ley, las siguientes entidades:

d) Todas las demás entidades con personalidad jurídica propia distintas de las expresadas en las letras anteriores que hayan sido creadas específicamente para satisfacer necesidades de interés general que no tengan carácter industrial o mercantil, siempre que uno o varios sujetos que deban considerarse poder adjudicador de acuerdo con los criterios de este apartado 3, bien financien mayoritariamente su actividad; bien controlen su gestión; o bien nombren a más de la mitad de los miembros de su órgano de administración, dirección o vigilancia.

Azkoitia Lantzen S.A.ren kasuan, aurrez esan bezala eta hainbatetan justifikatu bezala, betetzen dira baldintza horiek. Hori adierazteko honakoak hartu behar da kontuan:

- Sozietatearen jarduera eta helburuak aipatu tokiko erakundearen berezko eskumenekin lotuta daude, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, 25.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera: hirigintzako kudeaketa eta egikaritzea, lurzorua eta etxebizitzak sustatzea, zuzkiduretarako eraikinak egikaritzea, mota guztietako zerbitzuak ematea.*



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- *Sozietateko organo erabakitzailen izendapena Azkoitiko Udalaren esku dago, eta Udalbatzari dagokio Administrazio Kontseilua izendatzea. Horri dagokionez, Batzar Nagusia eta Udalbatzaren osoko bilkura aldi berean egin beharko dira. Estatutuen 14. artikulua betez, kontseilari izateko beharrezkoa izango da Udalbatzako kide izatea, eta haren alkate lehendakaria izango da sozietateko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.*

Horregatik SPKLaren 6. Artikulua aplikagarria da kasu honetan. Honakoa dio:

Artículo 6 Convenios y encomiendas de gestión

*Quedan excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios, **cuyo contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley** o en normas administrativas especiales **celebrados entre sí** por la Administración General del Estado, las Entidades Gestoras y los Servicios Comunes de la Seguridad Social, las Universidades Públicas, las Comunidades Autónomas y las Ciudades Autónomas de Ceuta y Melilla, **las Entidades locales, las entidades con personalidad jurídico pública de ellas dependientes y las entidades con personalidad jurídico privada, siempre que, en este último caso, tengan la condición de poder adjudicador.***

Su exclusión queda condicionada al cumplimiento de las siguientes condiciones:

- ***a)** Las entidades intervinientes no han de tener vocación de mercado, **la cual se presumirá cuando realicen en el mercado abierto un porcentaje igual o superior al 20 por ciento de las actividades objeto de colaboración.** Para el cálculo de dicho porcentaje se tomará en consideración el promedio del volumen de negocios total u otro indicador alternativo de actividad apropiado, como los gastos soportados considerados en relación con la prestación que constituya el objeto del convenio en los tres ejercicios anteriores a la adjudicación del contrato. Cuando, debido a la fecha de creación o de inicio de actividad o a la reorganización de las actividades, el volumen de negocios u otro indicador alternativo de actividad apropiado, como los gastos, no estuvieran disponibles respecto de los tres ejercicios anteriores o hubieran perdido su vigencia, será suficiente con demostrar que el cálculo del nivel de actividad se corresponde con la realidad, en especial, mediante proyecciones de negocio.*
- ***b)** Que el convenio establezca o **desarrolle una cooperación entre las entidades participantes con la finalidad de garantizar que los servicios públicos que les incumben se prestan de modo que se logren los objetivos que tienen en común.***



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- **c) Que el desarrollo de la cooperación se guíe *únicamente por consideraciones relacionadas con el interés público.***

Aurrez justifikatu denez, hitzarmen honen objektu diren egintzek ez dutela kontratu izaerarik, jarraian justifikatu nahi da aipatutako lege-xedapenak ezarritako baldintzak ere betetzen direla kasu honetan.

Arestian esan bezala, hitzarmen honen objektu diren kolaborazioko egintzak Azkoitiko Udalaren eskumenekoak diren diru-laguntzen izapidetzeen barruko zenbait izapide burutzean oinarritzen dira, inolako momentutan eskumenaren transferentziarik ez dagoelarik ezta ere diru-laguntza bidez emango diren fondoan transferentziarik. Egintza hauek ez dira merkatu irekian eskaintzen, Azkoitia Lantzen S.A. erakundeak Azkoitiko Udalaren diru-laguntzen kasuan egiten ditu, eta horregatik ez du kontraprestaziorik jasotzen. Hau da, egiteko hauek burutzeak ez ditu aldatzen Azkoitia Lantzen, S.A. enpresak jasotzen dituen diru-sarrerak. Beraz, lehenengo puntua betetzen dela adieraz dezakegu.

Bigarren eta hirugarren puntuen inguruan, aipatu behar da hitzarmen honen objektuak bi erakundeen eskumenekoak diren egintzak batzen dituztela, eta gainera biek dituzten helburuak lortzea ahalbideratzen dutela, lehen adierazi bezala.

BIGARRENA.- ORGANÓ ESKUDUNA

Kasu honetan planteatzen den hitzarmenean, berez Azkoitiko Udalarenak diren eskumenak, diru-laguntzen izapidetza, Azkoitia Lantzen sozietate pribatuaren esku uzten diren momentutik funtzioen nolabaiteko enkomenda edo delegazio bat dagoela iritzita egokitzat jotzen da hitzarmena Osoko Bilkurak onartzea, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p) artikulua eta 47.2. h) artikuluan oinarrituta, kontuan izanda, azken honen baitan onarpena gehiago absolutu bidez eman beharko zaiola.

ONDORIOA ETA PROPOSAMENA

Ondorio gisa azpimarratu behar da, batetik, bi erakundeen objektu eta eskumenean barruko helburuak batzen dituztela aipatutako ordenantzetan erregulatzen diren diru-laguntzek. Hori dela eta, berauen kudeaketan erakunde biek kolaborazioan jardutea egokitzat jotzen da.

Gaiaren justifikazioa bukatzeko, eta txosten honi 40/2015 Legearen 50. artikuluan zehaztutako memoriaren izaera ematea dagokiola adieraziz, ulertzen da aipatutako justifikazioa kontuan hartuta garbi geratzen dela hitzarmen honen burutzea beharrezkoa eta egokia dela bi erakundeen arteko helburuak betetzen laguntzeko,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

objektu dituen diru-laguntzen izapidetzeari dagokionez. Hainbatetan zehaztu legez, ez dago kontraprestaziorik, beraz, ez da bere inpaktu ekonomikoa aztertu behar.

Hortaz, ulertzen da bai 40/2015 Legeak 47 eta hurrengo artikuluetan zehaztutako eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla eta hortaz, bi erakundeen arteko hitzarmena egitea posible dela proposatzen den hitzarmenaren testuan adierazten diren hizpaketekin.

Zuzenbidean hobeto oinarritutako beste iritzi baten kalterik gabe,

*Azkoitian, 2020ko maiatzaren 12an
Amaia Gorrotxategi Zubizarreta
Udal Idazkaria*

Beraz, hau dena kontuan hartuta, ondoko irizpenaren onespena proposatzen zaio Ogasuna, Barne Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen ekonomikoa eta Merkataritza Batzorde Informatiboari:

IRIZPENA

LEHENA.- Azkoitiko udalak udalerrri honetan alokairua sustatzeko laguntzak izapidetzeko Azkoitia Lantzen S.A.rekin, ondoko baldintzen arabera, dagokion hitzarmena onartzea honako hizpaketak jasotzen dituen:

“LEHENA.- Hitzarmen honek, udalerrri honetan alokairua sustatzeko Azkoitiko udalak onarturiko laguntzak izapidetzeko Azkoitia Lantzen S.A. eta Udalaren harremanak arautuko ditu

BIGARRENA.- Hitzarmen honen bitartez, alderdiek ondoko zereginak beteko dituzte:

Azkoitia Lantzen S.A. ondoko zeregin hauek beteko ditu:

- 1.** Azkoitiko udalaren Herritarren Arreta-Bulegotik zuzenduriko eskaerak eta beraiei dagokien dokumentazioa jaso eta sailkatuko ditu.
- 2.** Deialdi eta Oinarri Arautzaileetan xedaturiko dokumentazioa aurkeztu den ala ez egiaztatuko du, eta beharrezkoa den kasuan, dokumentazioa osatzeko 10 eguneko epea emango dio eskatzaileari.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3. Jasotako eskaerak dagokion Udal Zerbitzura bideratuko ditu, izapidearen arabera, dokumentazioa edota txostena eskatuz.
4. Tramite hauek amaitzen direnean, dagokion ebazpen-proposamena erredaktatuko du, eta Udal Idazkaritzara igorriko du.
5. Behin eskuduntza duen udal organoak eskatutako laguntzari buruzko ebazpena hartuz gero, interesatuari jakinaraziko dio.
6. Halaber, udal baltzuak, dirulaguntzak izapidetu eta espedientea tramitatzeko beharrezkoak diren gainontzeko zereginak burutuko ditu.

Azkoitiako Udalak ondoko zereginak beteko ditu:

- 1.- Azkoitia Lantzen S.A.ri ahalik eta eperik motzenean pasako dio sarrera erregistroaren bitartez jasotako eskaera eta dokumentazioa.
- 2.- Azkoitia Lantzen S.A.-k eskatutako txosten teknikoak egingo dituzte Udaleko sailek 10 laneguneko epean.
- 3.- Egokitzat jotzen duenean, Azkoitia Lantzen S.A.-k egindako proposamenaren araberrako ebazpena emango du.
- 4.- Azkoitia Lantzen, S.A.ri esleitu zaizkion egitekoen egikaritzan sortutako zalantzak argituko dizkio, eta aholkularitza teknikoa eta juridikoa emango dio bere egitekoak behar den bezala burutu ditzan.

HIRUGARRENA.- Azkoitia Lantzen S.A.k ezingo ditu burutu funtzio publikoari dagozkion zereginak, edota udal zerbitzuei dagozkienak.

LAUGARRENA.-Hitzarmen honek ez du eragingo pertsonal berriaren kontratazioa udal baltzuan.

BOSGARRENA.- Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa izango da, erabakitzen den biharamunetik kontatzen hasita.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honek ez dakar ez eskumenaren titulartasuna, ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, Azkoitiko Udalaren ardura izango da egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen honen jarraipena eta interpretazioa aurrera eramateko bitariko batzordea sortuko da, alderdietako edozeinek hala eskatuz gero. Bitariko Batzordea osatuko dute Azkoitiako Udaleko bi kidek eta Azkoitia Lantzen S.A.ko administrazio kontseiluko bi kidek.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen honen suntsiarazpena eta honen efektuak erregulatuko dira 40/2015 Legearen 51 eta hurrengo artikuluen arabera.”

BIGARRENA.- Alkate-Lehendakariari, ahalmena ematea hitzarmena izenpetzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Azkoitia Lantzen S.A.ri jakinaraztea, eta hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta *Gipuzkoa Irekian* argitaratzea.

Batzordeko Idazkariak

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Itziar Joaristi, Iraitz Otaño.

ABSTENTZIOA: Jose Joakin Etxaniz.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du alokairuak sustatzeko dirulaguntzak Azkoitia Lantzenetik izapidatzen direla, eta hori egin ahal izateko hitzarmen bat sinatzen dela urtero.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Alokairu hauek sustatzeko laguntzak udaletxetik zuzenduko balira baiezkoa bozkatuko genuke, baina Azkoitia Lantzen tartean izanik abstenitu egingo gara.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Iraitz Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Bersistain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibaguren eta Janire Igoa Merino.

Abstentzioak: Jose Joakin Etxaniz Peña.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Udalbatza Osoak Gazteen alokairuak sustatzeko laguntzak izapidetzeko Azkoitiko Udala eta Azkoitia Lantzen, S.A.ren arteko hitzarmena onartzea gehiengoz erabaki du.

4.- 2020KO UDALEKO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEAK UDALBATZARI AURKEZTUTAKO

IRIZPENA

GAIA: 2020 KO UDALEKO AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUAREN ALDAKETA: 6.6 ATALA ERANSTEA, KUTXA FINKOKO AURRERAKIN SISTEMAK XEDATZEN DITUENA

1.- AURRERAKIAK

Orain arte, 300 € azpiko gastuen zerrendan, ordainketa agindua onartzen duen Alkatetza dekretuan, kontuhartzaileak honako behaketa osagarria ezartzen du:

“ordainketa aginduak 300 € baino gutxiagokoak dira BEZa aparte. Guztiak ez dute aurreko eskaririk. Orain arte eta Aurrekontua exekutatzeko Udal araeuan jasota dagoen moduan, 300 € arteko ordainagiriak zuzenean ordaintzen dira kontratu txikirik izapidetu gabe. Hau guztia bideratzea nahi da kontuhartzailezatik Udal arauaren aldaketa proposatuz eta 300€ arteko ordainagiriaren izapidetzea era honetara xedatuz

Kontratu txikitzat har daitezkeen 300€ arteko ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak, balio txikiko jarduerak direlako, planifikatzeko zailak direnak eta urgentziazko arreta behar dutenak, hala nola konponketak, jendeari irekitako establezimenduetako hornidurak, material inbentariaezina eta antzekoak

Ordorengo baldintzak beteta modu laburtuan izapidetu ahal izango dira, kutxa finkoko aurrerakin baten antzera, fakturaren itzulketa gisa, eskaintza bat aldeztu aurretik onartu beharrik gabe:

Jardueraren objektu osoa ez da inola ere 300 €-tik gorakoa izango. Ez dira onartuko objektu beraren zatiketarik egitea 300€ baino gutxiagoko hainbat ziurtagiri erabiliz. Jarduera zatikatzen bada dagokion erantzukizuna izango du Kontratazio-organoak.

Oro har, ez da beharrezkoa izango hiru aurrekontu eskatzea, baina bai prestazioaren merkatuko prezioak, jarduketaren eraginkortasuna, espedientearen izapidetzeko kostua eta lor dezakeen errentagarritasun ekonomikoa baloratzea fiskalizatuak izan dira Aurrekontua exekutatzeko Udal Arauaren 13. Artikuluaren arabera eta aldeko iritzia dute.”

OINARRI JURIDIKOA

LEHENENGOA:AURREKONTUA EXEKUTATZEKO UDAL ARAUA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, bere 9. Artikuluan xedatzen du Aurrekontua nola exekutatu behar den arautzen duen Udal araua, era honetara:

9. artikulua. Aurrekontuak Gauzatzeko Araua.

Toki erakundeen aurrekontu orokorretan Aurrekontuak Gauzatzeko Araua egon behar da; bertan aurrekontu arloko xedapen orokorrak erakundearen antolaketara eta inguruabarretara moldatu behar dira eta kudeaketa zuzenerako behar diren moldaketak ere egingo dira: gastuak hobeto egiteko eta baliabideak hobeto biltzeko egokietara eta komeniesten diren ohartarazpenak ezarriko dira. Ekonomi administrazioari buruzko legeria ezin alda daiteke, ez eta aurrekonturako aurreikusitakoa ez beste prozedura eta formalitate bereziak behar dituzten administrazio manuak ezarri ere.

BIGARRENGOA: KUTXA FINKOKO AURRERAKINAK

Toki Ogasuna arautzen duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 190. artikulua toki-erakundeetan kutxa finkoko aurrerakinak eratzeko aukera arautzen du. Hirugarren atalean xedatzen du aldizkakoak edo errepikakorak diren kasuetan justifikatu beharreko funtsak kutxa finkoko aurrerakinak izan daitezkeela. Gaineratzen du funts horiek jasotzen dituztenek aurrerakina eratu zen aurrekontu-ekitaldian jasotako zenbatekoen aplikazioa justifikatu beharko dutela.

Tresnak horiek, mota horretako gastu jardueren administrazio-kudeaketa sinplifikatzen dute. Aurrekontuari ez zaizkio zuzenean egozten eragiketa bakoitzeko, baizik eta kutxa deszentralizatu bateko arduradun batek ordaintzen dituztenean izapidetzen dira. Ondoren, tresna informatiko egoki bati esker, sistema horren bidez banku-transferentzia bidez ordaindutako egiaztagiri guztien egozpena bateratzen da, eta haien jarduera justifikatzeko kontu bat aurkezten da, ondoren, haren mende jartzeko. Kontu-hartzaitzako eta finantza-kontrolako funtzioaren arabera, erabilitako funtsak onets eta birjar daitezke.

Une honetan, kutxa finkoko aurrerakin bat eratzea eragozten dute kudeaketaren eta kontrolaren arteko funtzio-banaketa egokia ezartzeko Udalak dituen plantilla mugak, eta arduradun horrek izango lituzkeen beharrei erantzuteko tresna informatiko egokirik ez izateak. Gainera, inguruabar horiek eragozten dute Kontratuen Legearen 118. artikuluan aurreikusitako gastuaren beharrezko onarpena behar bezala betetzea kontratu txikitat hartzeko baldintzak betetzen dituzten jarduketara guztietarako, baita Hirugarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitako espezialitatearekin ere, kontuan izanda, espedientean aldez aurretik zenbait jarduketa burutu behar direla (68/2018 PKLTBren txostenean).

Estatuko Administrazio Orokorreko Kutxa Finkoko Aurrerakinak arautzen dituen ekainaren 16ko 725/1989 Errege Dekretuaren 2.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorri, badirudi 600 € gutxieneko zenbatekotzat hartzen dela aurrekontuari zuzenean egotzitako gastu-jarduketa bat eraginkorra izateko, eta horregatik ezartzen da zenbateko txikiagoak kutxa finkoko aurrerakin-sistemaren bidez ordaindu behar direla nahitaez.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Aurrekari horiek kontuan hartuta, aurrekontua gauzatzeko udal araeuan 300 eurotik beherako gastuetarako aurrekontu-kudeaketako faseak metatzeko sistema bat sartuko da. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, gastu hauen banakako izapidetzea ez da eraginkortzat jotzen (edozein administrazio-egintza baloratu behar den terminoetan).

IRIZPENA

LEHENA.- Udaleko aurrekontua gauzatzeko udal araeuan 6.6 atala eranstea testu hau proposatuz:

6.6. Kutxa finkoko aurrerakin sistema

6.6. Sistema de anticipo de caja fija

Kontratu txikitzat har daitezkeen 300€ arteko ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak, balio txikiko jarduerak direlako, planifikatzeko zailak direnak eta urgentziazko arreta behar dutenak, hala nola konponketak, jendeari irekitako establezimenduetako hornidurak, material inbentariaezina eta antzekoak, ondorengo baldintzak beteta modu laburtuan izapidetu ahal izango dira, kutxa finkoko aurrerakin baten antzera, fakturaren itzulketa gisa, eskaintza bat aldeztu aurretik onartu beharrik gabe:

Los gastos corrientes en bienes y servicios hasta el importe de 300€ que tengan la consideración de contratos menores, por tratarse de actuaciones de escaso valor, no planificables y de atención urgente, tales como reparaciones, suministros en establecimientos abiertos al público, material no inventariable y similares, podrán ser tramitados del siguiente modo abreviado, similar al que se utilizaría si se gestionaran dentro de un anticipo de caja fija, como reembolso de factura, sin necesidad en todo caso de aceptación previa de una oferta:

1.-Jardueraren objektu osoa ez da inola ere 300 €-tik gorakoa izango. Ez dira onartuko objektu beraren zatiketak egitea 300€ baino gutxiagoko hainbat ziurtagiri erabiliz. Jarduera zatikatzen bada dagokion erantzukizuna izango du Kontratazio-organoak.

1.-El objeto completo de la actuación no superará en ningún caso los 300€. Será responsabilidad del órgano de contratación que no se fraccionen las actuaciones en varios justificantes de importe inferior a 300€.

2.-Oro har, ez da beharrezkoa izango hiru aurrekontu eskatzea, baina bai prestazioaren merkatuko prezioak, jarduketaren eraginkortasuna, espediente izapidetzeko kostua eta lor dezakeen errentagarritasun ekonomikoa baloratzea.

2.- Como regla general, la solicitud de tres presupuestos en relación con este tipo de actuaciones de escasa cuantía no será necesaria, siendo preciso que se valore el conocimiento de los precios de mercado de la prestación a contratar, la eficacia de la actuación, el coste de tramitación del expediente y la rentabilidad económica que puede conseguir.

3.-Fakturak gastu independentearen onarpena duten beste jarduera batzuei dagozkien gainerako fakturak bezala erregistratuko dira.

3.- Las facturas se registrarán como el resto de las que correspondan a otras actuaciones con aprobación de gasto independiente.

4.-Publizitate-ondorioetarako, gastu txikien faktura horiek kutxa finkoko aurrerakin-sistema baten bidez izapidetutakoekin berdina.

4.- Se dará un tratamiento a efectos de publicidad a estas facturas de gastos menores idéntico al que hubieran recibido las tramitadas con un sistema



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

izango dira, oinarri honetan jasotakoa Udal honetan izan daitekeenaren antzekoena delako.

de anticipo de caja fija, por considerarse el recogido en esta base lo más similar a ese que puede existir en esta corporación.

BIGARRENA.- Udalbatzarrari dagokio aipatutako espedientea onartzea, eta Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako informazioari, erreklamazioei, publizitateari eta baliabideei buruzko izapideak zaizkio aplikatzekoak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jende aurrera azalduko da hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko ekainaren 18an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen. Hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Ainara Goenaga, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz.”

Ana Azkoitia andreak Udal Arauak bigarren aldaketa duela esan du. Kontuhartzaitzetan fiskalizaziorako gero eta arau gogorragoak daudela dio, eta konturatu direla 300€ azpiko fakturretan balerik ez dela egiten, beraz balerik egiten ez den gastuagatik erreparatu txiki bat egiten dela. Hori konpontzeko, 300€ azpiko gastuak kutxa finkoko aurrerakin bezala asimilatzen dira, eta horrela erreparatu horiek ez dira egingo, balerik behar ez dutela ulertzen delako.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Kantitate handiak ez direla kontuan harturik eta barne kudeaketan lagunduko duelakoan, gastu hauek kutxa finkoko aurrerakin gisa tratatzea ondo iruditzen zaigu.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Iraitz Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarburen, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020ko udaleko aurrekontua gauzatzeko udal arauaren aldaketa hasieraz onartzea aho batez erabaki du.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5.- COVID-19 GAITZAREN KRISIAGATIK BEREZIKI KALTETUTAKO KOLEKTIBOENTZAT 2020KO TASETAN APARTEKO HOBARIAK EZARTZEKO HASIERAKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEAK UDALBATZARI AURKEZTUTAKO

IRIZPENA

GAIA: 2020 KO TASETAN APARTEKO HOBARIAK ONARTZEA COVID 19 GAITZAREN KRISIAGATIK BEREZIKI KALTETUTAKO KOLEKTIBOENTZAT

AURREKARIAK

Lehenengoa: 3/2020 Foru Dekretu Araua

2020ko maiatzaren 14ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 3/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsagatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituena eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituena.

Foru dekretu Arau honen hirugarren artikulua dio toki-erakundeek aparteko hobariak onartu ahal izango dituztela Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren II. tituluko III. kapituluko 3. atalaren arabera ezarritako udal-tasen zenbatekoaren gainean.

Hobari horiek Covid-19 gaitzaren osasun-krisiak eragindakoak izan beharko dira, eta krisi horrek bereziki kaltetutako kolektiboei aplikatu ahal izango zaizkie.

Aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan ahalko dute.

Bigarrenkoa: Merkatal guneak

Estatu Espainiarrak martxoaren 13an alarma egoera ebatzi zuen. Herriko Merkatal gune guztiak itxi ziren. Egoera honek horrela jarraitu zuen Euskadi lehenengo fasean sartu zen arte, maiatzaren 11 arte hain zuzen. Itxita egon diren bitarte honetan sorturiko kalte ekonomikoak oso garrantzitsuak dira guztientzat. Hasiera batean Antolakuntza batzordean jakinarazi zen hauei guztiei lokal hutsen tarifa ezarriko zitzaizela Zaborraren tasan.

Ondoren, 3/2020 foru arauak aukera eman die Udalei hobariak onartzeko tasetan eta eskumen hau erabiliz, zaborraren bigarren hiruhilabeteko tasan 100% hobaria ezarri nahi zaie itxita egon diren merkataritza guneei. Egoera honi zertxobait laguntzeko ere Udalak bonoak sortu ditu maiatzaren 15ean onarturiko dekretu baten bitartez:

za

2.- Azkoitiko Udaleko Merkataritza sailak, COVID-19ak sortu duen larrialdi egoera dela eta Herrixen Azkoitiko Dendaixen Elkartearekin lankidetzan eta herriko saltoki eta zerbitzuak onartu nahian, erosketa bonuak banatuko dira herritarren artean, herriko saltoki eta zerbitzuetan erabiliz.

Hirugarrenkoa: Terrazen dekretua

2020ko terrazen tasari dagokionez, aurten, oraindik, baimenik eskatu gabe zuten tabernariak alarma egoera ebatzi zenean.

Terrazak zabaltzeko aukera egon zenean, maiatzaren 18an hain zuzen, aurretik hainbat eskakizun eta azterketa izan ziren Udalean gai honi buruz.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jakinarazi zitzaizen guztiei, 2019an ordaindu zuten mahai kopuru berbera jarri zezaketela lur zoru publikoan 2020ko maiatzaren 18tik aurrera.

Mahaiak kalera atera ezinik egon diren denbora tartean, lur zoru publikoa okupatu ez denez, ez da tasarik likidatuko.

Ateratzeko aukera eduki dutenetik ordea, 2019ko mahai kopuru berbera likidatuko zaie, beti ere Udaltzaingoarean ikuskapeneko txostenak ez badu beste kopuru altuago bat jakinarazten zergabilketa arloan.

Laugarren goia: Larunbateko merkatua

Estatu Espainiarrak martxoaren 13ko alarma egoeraren ondoren larunbata batzuetan Alkatetza dekretuz larunbateko azoka ez egiteko agindua eman zen.

Agindu hori indarrean egon izan den bitartean ez da dagokion tasa likidatuko, ez baita zoru publikoa erabili.

Bosgarren goia: Baserriak

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia-mailara igo zuen Covid-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera. Deklarazio horren ondorioz, 2020ko martxoaren 14an, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua argitaratu eta indarrean jarri zen, zeinaren bidez alarma-egoera deklaratu zen, Covid-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiari aurre egiteko. Egoera honek ekonomia eta enpresa-sektore ugari eragiten die, hala nola, lehen sektoreko baserriarrei, normaltasunez jardutea eragoziz.

Bestalde, Gipuzkoa Foru Aldundiak, 3/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 12koa, eman du, non, besteak beste, toki-erakundeentzako zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen. Zehazki, 3. artikulua xedatzen du 2020an, toki-erakundeek aparteko hobariak onartu ahal izango dituztela ezarritako udal-tasen zenbatekoaren gainean. Hobari horiek Covid-19 gaitzaren osasun-krisiak eragindakoak izan beharko dira, eta krisi horrek bereziki kaltetutako kolektiboak aplikatu ahal izango zaizkie.

Horrenbestez, baserriaren premia eta berezitasun sozioekonomikoei erantzuteko, beharrezkoa da laguntzeko mekanismoak sustatzea, egoerak hala eskatzen duelako.

Horregatik, Azkoitiko Udalak, hondakin solidoak eta geldoak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko edo deusezteko zerbitzuaren tasan, Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren altan emanda dagoela egiaztatzen duten baserriarrei, %100ko hobaria aplikatuko dio 2020an urte osoan zehar.

Kontuan hartuta alarma egoeraren deklarazioak baserriarrei nolako mugak ezarri dizkieten, Azkoitiko Udalak, hobari honekin, 2020an baserriarren bizkar erori den karga arintzea nahi du. Azkoitian, lehen sektore esanguratsu bat dagoelako, gai dena osasun eta kalitate berme guztiekin premiazko produktuak eta lehengaiak emateko eta 0 KM produktuen kontsumoa bermatzeko. Gainera, ez dugu ahaztu behar Azkoitiko Udalerriko lurren azalera handi bat hartzen duela, eta beraz, berebiziko garrantzia duela lurraldearen kontserbazioaren, egituraketaren, kudeaketaren eta orekaren ikuspegitik lehen sektore indartsu bat izatea. Beraz, Azkoitiar guztion intereseko delako, gure baserriarrek elikagaiak emateko duten gaitasunari eustea eta COVID-19 dela eta izan duten galera arintzeko goian aipatutako hobaria aplikatuko zaie Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren alta menada dagoela egiaztatzen duten baserriarrei.

ONARRI JURIDIKOAK ETA EKONOMIKOAK

1.- ORDENANTZA FISKALA

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, 7. artikuluan ezartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalerriek dagokiela, Foru Arau honek ezarritakoaren esparruan, bere zergak kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, eta ekintza horiek egiterakoan ez dira kaltetuko udal zergak arautzen dituzten foru arauetan eta horiek garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan ezartzen diren espezialitateak, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hau garatzeko ezarritako gainerako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beren ordenantza fiskalen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriek, aurreko atalean aipatzen den araudia bakoitzaren barne antolamenduaren eta funtzionamenduaren arabera egokitu ahal izango dute, eta egokitzapen hori ezingo da araudi horretan jasotako eduki materialaren aurkakoa izan.

2.- ORDENANTZA FISKALEN EDUKIA:

Ordenantza fiskalek, gutxienez, ondokoa jasoko dute:

A/ Egintza ezargarri, subjektu pasibo, erantzule, salbuespen, murriztapen eta hobari, oinarri zergagarri eta likidagarri, karga mota edo tributuko kuota, epealdi ezargarri eta sortzapenaren zehaztapena.

B/ Aitorpen eta sarrera erregimenak.

C/ Bere ezarpenaren onespenez eta hasiera datak.

Ordenantza Fiskal hauen onespenerako akordioak, dagozkien tributuko ezartzeko akordioekin batera hartu beharko dira.

Aipatu ordenantzak aldatzeko akordioek, ukituriko arauen idazketa berria, beren onespenez datak eta beren ezarpen hasiera jaso beharko dituzte.

3.- COVID 19 AGATIK ONARTUKO DIREN HOBARIEN AZTERKETA EKONOMIKOA

3.1. Zaborraren bigarren hiru hilabeteko tasa: Merkatariak

Alarma egoeran itxita egon diren merkatal guneei dagokien 2. Hiru hilabeteko zaborraren tasa ehuneko ehun hobia ezartzea da irizpenaren atal bat.

Hobari hau hurrengo azpiatale ezarriko zaie: 2,3,4,11,12,13,14 eta 15.

Azpiatal hauen hiru hilabeteko bilketa 8.077,51 € dira gutxi gora behera; kopuru honetan guztiak sartuta daude, itxi zutenak eta irekiak egon zirenak alarma egoera osoan. Beraz, kopuru honen azpitik egongo da Udalaren diru sarreraren murrizketa.

3.2 zaborraren tasa: Baserriak

75 baserri dira bertan bizi den pertsonetako bat Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren altan daudenak eta hauen 2020ko tasa 84,71 € izanik, 2020an ehuneko ehun hobia ezartzearen ondorio ekonomikoa 6.353,25 € gutxiagoko diru sarrera suposatuko dio Udalari.

IRIZPENA

LEHENENGOA.- 2020rako Ordenantza fiskalak aldatzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraina edukiz, aldatutako testuak honela geratzen direlarik:

1.-UDAL-JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Aldaketak sartzen dira tasa arautzen duen Ordenantza fiskalaren ERANSKINA, eta honela geratzen da idatzita:

1.1.- MAHAI, MAHAITXO, AULKI, ZOLADURA, LOREONTZI, ITZALKIN EDO ANTZEKO INSTALAZIOENGATIK.

Mahai bakoitzeko kuota urtean85,02 euro.

Udako kuota maiatzaren 1etik urriaren 31.....56,68 euro.

Taberna bakoitzaren Mahai kopurua 2019ko erreferentziarekin kalkulatuko dira 2020an.

Udalak ikuskapenak gauzatu ditu urtean zehar. Ikuskapeneko txostenean 2019ko likidazioan azaltzen diren mahai kopuruaren gainetik jarri dituztela ziurtatuko balitz, ikuskapeneko txosteneko kopurua izango da 2020an likidatuko dena, beti ere mahaiak jartzeko aukera izan dutenetik aurrera (maiatzak 18).

Tasa ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortuko da, baimen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkien tasak baimenak ematen diren egunean bertan sortuko baitira.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Udako tasa maiatzaren hemezortzian sortuko da, baimen berriak ematen direnean izan ezik, horiei dagozkion tasak baimenak ematen diren egunean bertan sortuko dira.

Taberna kanpoan kupelak edo antzekoak ezartzeagatik kupeleko..... 21,25 euro.

Covid -19agatik mahaia atera ezinik egon diren denbora tarteari dagozkion tasa ez da likidatuko, ez baita zoru publikoa okupatu. Kuota proportzionalki kalkulatu da urte osoarekin alderatuz.

1.2- SALTZAILE IBILTARIEK ZERBITZUAK JARTZEAGATIK AZOKETAN, AZOKA TXIKIETAN ETA ABARRETAN.

Metro karratuko edo okupazio-zatiko, 1,05 euro egunean.

Asteko merkatuari dagozkion kuota hiru hilez behingoa izango da eta aurrez ordaindu beharko da.

Hiruhilekoren batean emakidaduna ez bada asteko azokara azaltzen lau astez jarraian, galdu egingo du emakida.

Covid -19agatik azoka izan ez den denbora tarteari dagozkion tasa ez da likidatuko, ez baita zoru publikoa okupatu. Kuota proportzionalki kalkulatu da urte osoarekin alderatuz.

2.- ZERBITZU PUBLIKOAK EMAN ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO TASA ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA

2.1.- HONDAKIN SOLIDOAK ETA GELDOAK BILTZEKO, TRATATZEKO ETA APROBETXATZEKO ZERBITZUAK.

	ZERBITZUAK DESCRIPCIÓN DE LA TARIFA	URTEKO ZERGA 2020
A)	NAITAHEZ HARTZEKOAK DIREN HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK EDO HORIEN PAREKOAK DIRENAK BILTZEKO, TRATATZEKO ETA APROBETXATZEKO EDO DEUSEZTATZEKO ZERBITZUA	
1	Bizileku partikularrak	169,42
2	Merkataritza edo eta zerbitzu establezimendua	
2a	Elikagai edo edari-dendak- 100m2-ra arte	316,21
2b	Elikagari edo edari-dendak- 101-250 m2	453,67
2c	Elikagai edo edari-dendak- 251-500m2	907,36
3	Fruta-dendak	453,67
4	Hotelak,ostatuak eta landetxeak	
4a	8 gelara arte	430,07
4b	9-16 gela	645,12
4c	16 gelatik gora	860,18
5	Egoitzak, aterpetxeak, udalekuak etab.	860,18
6	Bankuak , finantza erakundeak, korreos eta antzekoak	1.088,82
7	Etzetresna elektrikoak, tailerrak, fabrikak, biltegiak eta dendak	
7a	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 100m2-ra arte	362,94
7b	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 101-500m2	816,61
7c	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 501-1000m2	1.088,82
7d	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 1001-3000m2	1.451,76
7e	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 3001-10000m2	1.723,99
7f	Tailerrak, fabrikak eta biltegiak 10000m2 tik gora	1.996,20



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	EKOIZLE HANDIAK. Erabiltzaileak errefusa biltzeko kontainer bat edo gehiago erabiltzeko aukera baldin badu, kuota hau ezarriko zaio: 1000 l. edo edukiera baliokidea duen kontainer bakoitzeko	648,23
8	Garajea-aparkalekua	
8a	5 ibilgailura arte har ditzakeen garajea-aparkalekua	109,04
8b	10 ibilgailura arte har ditzakeen garajea-aparkalekua	132,21
8c	30 ibilgailura arte har ditzakeen garajea-aparkalekua	224,87
8d	30 ibilgailutik gora har ditzakeen garajea-aparkalekua	317,58
9	anbulategiak	
9a	250m2-ra arteko ambulategiak	544,42
9b	250m2 tik gorako ambulategiak	1.578,80
10	Profesionalen bulegoak	424,12
11	Erabiltzen ez diren merkataritza, industria edo zerbitzu jardueretako etxabeak eta bestelako eraikinak, biltegi-moduan erabiltzen ez direnak, edota bere erabilpena biltegi moduan bada, beti ere beste jarduera nagusi bati lotua badago.	136,14
12	Ostalaritza, jatetxe, taberna, pub eta antzeko establezimenduak, dantzalekuak eta joko-aretoak	
13		
a	25m2-ra arte	362,94
13		
b	26-50 m2	399,24
13c	51-100 m2	453,67
13		
d	101-250 m2	544,42
13		
e	251-500 m2	725,88
13f	500m2-tik gora	816,61
14	Ileapaindegiak, estetika-zentroak, jostunak eta arte-galeriak	317,58
15	ikasketa-akademiak	306,69
16	Kulturako eta dibertimendurako sozietateak	
16		
a	100m2-ra arte	453,67
16		
b	100m2 tik gora	544,42
17	Baserriak	84,71

Ehuneko 30eko hoberia ezartzen da auzo konposta egiten dutenentzat.

Titular batek eraikin berean jarduera bat baino gehiago baldin baditu, ordaindu behar duenak kuota handieneko jarduerari dagokion prezioa ordainduko du. Era berean, titular batek eraikin berean jarduera bat baino gehiago baldin baditu eta, aldi berean, etxebizitzarako erabiltzen badu, ordaindu behar duenak kuota handieneko jarduerari edo erabilerari dagokion prezioa ordainduko du.

Sortzapena. Ezarritako prezioak ordaintzeko beharra hiruhileko bakoitzaren lehen egunean sortuko da, eta hiru hilez behin egingo da likidazioa.

Baserriak: bertan bizi den pertsonetako bat Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren altan emanda egongo balitz, 2020. Urtean 100% hoberia edukiko du Covid -19 agatik bereziki kaltetutako kolektiboa izan delako.

Merkataria : 2,3,4,11,12,13,14 eta 15 azpitaletan jasota daudenak hain zuzen, 2020 bigarren hiruhilabeteko tasan 100% hoberia edukiko dute Covid -19 agatik bereziki kaltetutako kolektiboa izan direlako, beti ere itxita egon badira hiruhilabete honetan Covid -19 agatik.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16.1. artikuluan xedatutakoa betez, bitarteko ofizial honetan, Udaleko iragarki-taulan eta Gipuzkoan zabalkunde handieneko egunkarian iragarkiak argitaratuta, aipatutako artikuluan, 2. idatz-zatian, adierazitakoaren arabera, eta arau hauei jarraituz:

a) Agiriak erakusgai dauden lekua: Udaletxeko Kontuhartzaitetzan.

b) Agiriak aztertu eta, hala badagokio, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarki hau azken aldiz argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

Honako hauek egin ditzakete erreklamazioak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17.artikuluan adierazitakoak.

Erreklamazioak aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorra. Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako leketan ere aurkez daitezke erreklamazioak.

Erreklamazioen hartzailea: Udalbatza osoa.

HIRUGARRENA: Informazio hau jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, behin betiko bilakatuko dira hartutako erabakiak, erabaki gehiagoren beharrik gabe.

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko ekainaren 18an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen. Hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Ainara Goenaga, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz.”

Ana Azkoitia andreak azaldu du tasetan hobariak jartzea ahalbideratu duela Gipuzkoako Foru Aldundiak, COVID-19 dela medio. Hori dela eta, hiru aldaketa nagusi daude:

- Zaborren tasak ez kobratzea 2. hiru hilekoan itxitako establezimenduei
- Lurzoru publikoaren erabileragatiko (terrazak, azoka) tasa erabili ez den neurrian ez kobratzea.
- Baserritarren zabor tasan hobariekin jarraitzea 2020. urtean, onuradunei COVID-19agatik ez zaielako komunikatu hobaria kentzen zela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Hobari hauen onuradunentzat behar bada laguntza gutxi eta berandu iritsitakoak izango dira, baina egun gutxi barru laguntza lerro gehiago izango direla jakinik eta azken finean, hemen eta orain aurkeztutako hauek ere, gehien kaltetuei onura ekarriko dietela kontutan harturik, alde bozkatuko dugu.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Iraitz Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza osoak Covid-19 gaitzaren krisiagatik bereziki kaltetutako kolektiboentzat 2020ko tasetan aparteko hobariak ezartzea hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

6.- ELKARGUNeko ZERBITZUAK INDARREAN JARTZEAREN ONDORIOAK TASETAN.

Honako irizpena aurkeztu da:

“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATZAILEAK UDALBATZARI AURKEZTUTAKO

IRIZPENA

GAIA: ELKARGUNeko ZERBITZUAK INDARREAN JARTZEN DIRA ETA HONEN ONDORIOAK TASETAN

AUTOMATIKOKI TASEN SORTZAPEN ZERGAGARRIA EMANGO DA ETA 2020KO ORDENANTZA FISKALEAN ONARTURIKO KUOTAK BERRIZ ERE LIKIDATU ETA KOBRATUKO DIRA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Martxoaren 13ko Alkatearen dekretuaren bitartez Elkarguneko Eraikinean ematen ari ziren zerbitzuak eten egin ziren.

BIGARRENGOA: Azkoitiko Udalbatza Plenoak 2020ko martxoaren 25ean egindako bilkuran honako hau onartu zuen:

LEHENA.- Elkarguneko taseen ezarpena bertan behera uztea Elkarguneko zerbitzuak eta jarduerak etenda dauden bitartean, tasa honen sortzapena etenda gelditu baita.

Martxoari dagozkion tasak likidatuak eta kobratuak daudenez, martxoaren 13tik martxoaren 31 bitartekoak itzuli egingo dira. Behin zerbitzua martxan jartzean, erabakiko da itzultzea nola gauzatu.

Hurrengo hilabeteko kuotak, oinarri zergagarria sortu ez denez, ez dira likidatutako.

BIGARRENA.-Behin zerbitzua berriz ere ematen denean automatikoki taseen sortzapen zergagarria emango da eta 2020ko ordenantza fiskalean onarturiko kuotak berriz ere likidatu eta kobratuko dira.

HIRUGARRENGOA:

Ekainaren 15ean Ugarte Igarango igerilekuak eta Zubiaurre Elkarguneko Eraikinak atek zabalduko dituzte, bertako kanpoko igerilekua, igerileku estalia eta gimnasioaren zerbitzuak martxan jarri. Gimnasioaren



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

azalera bikoiztu egingo da, egungo gela eta alboan dagoen beste gela egokituz gimnasioko zerbitzuak eskaintzeko. Covid 19aren inguruan onarturiko segurtasun neurri guztiak bermatuko dira.

LAUGARRENGOA:

Ekainaren 15ean zerbitzua martxan jarri denez automatikoki tasen sortzapean zergagarria ematen da eta ondorioz, ekainaren 15etik ekainaren 30 bitartean sortzen diren tasak likidatu egingo dira baina ez dira kobratuko. Hauek martxoaren 13tik martxoaren 31 bitartekoak kobratu zirenak eta itzuli behar zirenen itzultzea ordezkatzeko dute.

Ondorioz lehenengo hiruhilabetekoan bazkide ziren orok bigarren hiruhilabetekoan bazkide izaten jarraituko dute.

BOSTGARRENGOA:

Elkarguneko eraikinean martxoan eskaintzen ari ziren jarduerak ere martxoaren 13an eten egin ziren. Jarduera hauek irailaren bigarren hamabostaldian eskainiko dira, beti ere gaur egun bizi dugun egoera zail honek lagako balu. Martxoan jarduera hauei dagokien tasa likidatu eta kobratu zenez, irailan eskainiko diren egunak likidatuko dira baina ez dira kobratuko, martxoko tasen itzultzea ordezkatzeko baitute.

ARRAZOI JURIDIKOAK

1.OINARRI ZERGAGARRIA, SORTZAPENA ETA ITZULTZEA:

2/2004 EDL bitartez, Udal Ogasunen araudi juridikoa xedatzen da.

Tasei dagokionez 20. Artikuluak honako hau dio:

Artículo 20 Hecho imponible

1. Las entidades locales, en los términos previstos en esta ley, podrán establecer tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local, así como por la prestación de servicios públicos o la realización de actividades administrativas de competencia local que se refieran, afecten o beneficien de modo particular a los sujetos pasivos.

En todo caso, tendrán la consideración de tasas las prestaciones patrimoniales que establezcan las entidades locales por:

- **A) La utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.**
 1. **B) La prestación de un servicio público o la realización de una actividad administrativa en régimen de derecho público de competencia local que se refiera, afecte o beneficie de modo particular al sujeto pasivo, cuando se produzca cualquiera de las circunstancias siguientes:**
 2. **a) Que no sean de solicitud o recepción voluntaria para los administrados. A estos efectos no se considerará voluntaria la solicitud o la recepción por parte de los administrados:**
Cuando venga impuesta por disposiciones legales o reglamentarias.

Artículo 26 Devengo

1. Las tasas podrán devengarse, según la naturaleza de su hecho imponible y conforme determine la respectiva ordenanza fiscal:

1. *a) Cuando se inicie el uso privativo o el aprovechamiento especial, o cuando se inicie la prestación del servicio o la realización de la actividad, aunque en ambos casos podrá exigirse el depósito previo de su importe total o parcial.*
 2. *b) Cuando se presente la solicitud que inicie la actuación o el expediente, que no se realizará o tramitará sin que se haya efectuado el pago correspondiente.*
- 2. Cuando la naturaleza material de la tasa exija el devengo periódico de ésta, y así se determine en la correspondiente ordenanza fiscal, el devengo tendrá lugar el 1 de enero de cada año y el periodo impositivo comprenderá el año natural, salvo en los supuestos de inicio o cese en la utilización privativa, el aprovechamiento especial o el uso del servicio o actividad, en cuyo caso el*



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

período impositivo se ajustará a esa circunstancia con el consiguiente prorrateo de la cuota, en los términos que se establezcan en la correspondiente ordenanza fiscal.

3. Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el servicio público, la actividad administrativa o el derecho a la utilización o aprovechamiento del dominio público no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

2.-TASEN ZERGABILKETAREN KUDEAKETA:

2/2004 EDL ren 12. Artikuluak honako hau dio:

Artículo 12 Gestión

- *La gestión, liquidación, inspección y recaudación de los tributos locales se realizará de acuerdo con lo prevenido en la [Ley General Tributaria](#) y en las demás leyes del Estado reguladoras de la materia, así como en las disposiciones dictadas para su desarrollo.*

3.-konpentsazioa:

2/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 FORU ARAUA.

22. artikuluak sortzapena eta 72. Artikuluak konpentsazioa arautzen ditu era honetara

Artículo 22 Devengo y exigibilidad

1. El devengo es el momento en el que se entiende realizado el hecho imponible y en el que se produce el nacimiento de la obligación tributaria principal, salvo que la Norma Foral de cada tributo fije un momento distinto de aquél.

La fecha del devengo determina las circunstancias relevantes para la configuración de la obligación tributaria, salvo que la Norma Foral de cada tributo disponga otra cosa.

La normativa de cada tributo podrá establecer la exigibilidad de la cuota o cantidad a ingresar, o de parte de la misma, en un momento distinto al del devengo del tributo.

- **Artículo 72 Compensación de oficio**

Se compensarán de oficio durante el plazo de ingreso en período voluntario las cantidades a ingresar y a devolver que resulten de un mismo procedimiento de gestión o inspección o de la práctica de una nueva liquidación por haber sido anulada otra anterior de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 26.5 de esta Norma Foral.

26.5. En los casos en que resulte necesaria la práctica de una nueva liquidación como consecuencia de haber sido anulada otra liquidación por una resolución administrativa

IRIZPENA

BAKARRA.- Ugarte Igarango igerilekuak eta Elkargune eraikineko zerbitzuak berriz ere martxan jartzen direnez ekainaren 15ean, 2020ko ordenantza fiskalean onarturiko tasen sortzapen zergagarria data horretan gertatuko da.

Ekainaren 15etik ekainaren 30a bitartean sortzen diren tasak likidatu egingo dira baina ez dira kobratuko. Hauek martxoaren 13tik martxoaren 31 bitartekoak kobratu zirenak eta itzuli behar zirenen itzultzea ordezkatzeko dute, era honetara konpentsatuz.

Martxoan eskaintzen eta eten ziren jarduerak iraileko bigarren hiruhilabetekoan eskainiko dira, egoerak utziko balu noski, eta jarduera hauei dagokien tasa martxoan likidatu eta kobratu zenez, irailean eskainiko



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

diren egunak likidatuko dira baina ez dira kobratuko, martxoko tasen itzultzea ordezkaturko baitute , era honetara konpentsatuz.

Azkoitia, 2020ko ekainaren 18a
ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO IDAZKARIAK

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko ekainaren 18an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen. Hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Ainara Goenaga, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz

Azkoitian, 2020ko ekainaren 18an
Batzordeko Idazkariak”

Ana Azkoitia andreak uztailetik aurrera tasak kobratzea planteatzen dela azaldu du. Martxoan ordaindutakoak konpentsatuko duela ekainean ematen den zerbitzua. Martxoan egin gabe geratu ziren klaseak, irailean emango direla planteatzen dela ere gehitu du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Denontzat buruhauste gutxien sortuko duen sistema izango dela iruditzen zaigu eta dirua bueltatzea nahi duenak ere arazorik ez duela izango jakinarazi digutenez, alde bozkatuko dugu.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Iraitz Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Iburguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Elkarguneko zerbitzuak indarrean jartzearen ondorioak tasetan onartzea aho batez erabaki du.

7.- AZKOITIKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN OINARRI OROKOR ETA ESPEZIFIKO ARAUTZAILEEN HASIERAKO ONESPENA.

Honako irizpena aurkeztu da:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA

AZKOITIKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRI OROKOR ETA ESPEZIFIKO ARAUTZAILEEN ONARPENA

AURREKARIAK

I.- Orain artean, Azkoitiko Udalak eman dituen diru-laguntza bakoitzak bere araudi propio bidez erregulatu dira. Ondorioz, Diru-laguntza lerro bakoitzak bere prozedura, baldintza eta justifikazio modua izan dute. Horrek, diru-laguntzen onuradunei nahasteak sortu izan dizkie, gehien bat, diru-laguntza lerro bat baino gehiagoren onuradun izan direnei. Gainera, Udalaren barne funtzionamendurako ere kaltegarria izan da, besteak beste, ezin izan direlako eredu orokorrak sortu eta sistema errazturik ezarri diru-laguntzak emateko eta onuradunek jasotako diru-laguntza zuritzeko.

II.- 2020. urtean arazo hauek ekiditeko erabaki da Oinarri Orokorrak lantzea eta Oinarri zehatzak Oinarri Orokor horietara egokitzea. Horrela, diru-laguntzen onuradunek testu bakar batean eskuragarri izango dituzte aplikagarriak zaizkien arauak (noski, kanpo utzita diru-laguntza guztiei aplikagarriak zaizkien Legedi Orokorra eta berau garatzen duen erregelamendua).

III.- Landu diren Oinarri Orokor hauetan lerro guztiei, bai norgehiagoka bidezkoiei eta baita zuzenean esleituei ere, aplikagarriak zaizkien xedapen orokorrak, eskabidea egiteko jarraitu beharreko prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen zaizkien baldintzak, aurkezteko epeak, diru-laguntza zertarako den justifikatzea, diru-laguntzak ordaintzea, zehapenak eta abar. arautu dira. Oinarri espezifikoak oinarri orokor hauetara egokitu dira eta beraietan lerro bakoitzaren berezitasunak zehaztu dira, hala nola diru-laguntza esleitu eta banatzeko irizpideak, aurrerakinak emateko aukera, aurkeztu beharreko agiriak eta abar. arautu dira.

IV.- Behin Oinarri Orokorrak landuta, maiatzaren 6an eta 8an, politikari eta teknikariek bilerak egin dira, zer landu den adierazteko eta aldaketa proposamenak jasotzeko.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

LEHENA.- Araudi aplikagarria

- g.* 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen.
- h.* 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzen Lege Orokorra.
- i.* 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21koa, Diru-laguntzen Lege Orokorra 38/2003 garatzen duena.
- j.* 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

BIGARRENA.- Organo eskuduna eta jarraitu beharreko prozedura



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

38/2003 Lege Orokorreko 17.2 artikulua araberan, toki-korporazioen diru-laguntzen oinarri arautzaileak, aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan onartu beharko dira, diru-laguntzen ordenantza orokor baten bidez edo ordenantza espezifiko baten bidez. Kasu honetan argi dago biak erabiliko direla. Hots, Azkoitiko Udalak onartu behar dituen Oinarri Orokorrek parekatuko dira ordenantza orokor batera eta berarekin egokitzea aurreikusitako lerroak ordenantza espezifikoaren bidez burutuko dela.

38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua xedatzen du, diru-laguntza mota bakoitzaren oinarri arautzaileak Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko direla. Beraz, gure kasuan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko direla.

Bestalde, Diru-laguntzen Datu-base Nazionala eta diru-laguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituen martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretuaren 6.2 artikulua ezartzen duenez, deialdia izapidetuko da behin oinarri arautzaileak finkatuta. Gainera, Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratu baino lehen, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalan (BDNS) sartu beharreko informazioa erregistratu beharko da, bitarteko elektronikoak erabiliz.

Nahiz eta eztabaidatutako gaia izan den, gehiengoaren antzera, ulertzen da diru-laguntzen oinarri arautzaileak erregelamenduak direla, eta, beraz, diru-laguntza hauen Oinarri Orokor eta Espezifikoaren izapideak, 7/1985 Legearen 49. artikuluan aurreikusitakoa jarraitu behar da, hau da, Udaltzaren onartzea, hogeita hamar eguneko jendaurrean jartzea, behin betiko onartzea eta oinarrien testua argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Herritarren parte-hartzea

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak, 133. artikulua araberan erregelamenduen proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratu behar da administrazio eskudunen webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek. iritzia puntu hauei buruzkoa izango da:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Kasu honetan, proposatzen diren Oinarri Orokorrek eragin handiena Udaltzaren antolakuntza dauka, esan daiteke antolakuntza eta bateratze arauak direla. Gainera, onuradunei betebeharrak gehiago exijitu partez, betebeharrak argitu egiten dizkio eta exijitzen diren betebeharrak aurkeztea erraztu egiten dio erabiliko diren inprimaki normalizatuak direla eta. Eragin ekonomikoari dagokionez, ez dago inolako aldaketarik, azken finean, urtero onartzen diren diru-laguntzak dira eta ez da lerro berririk gehitu eta ez da partidetan diru gehiago jartzea aurreikusten. Horretaz gain, oinarri espezifikoak dagokionean, beraien egokitze bat egiten da, lehendik ere indarrean dauden oinarrien aldaketa bat da, hortaz, aspektu partzial bat arautzen da. Ondorioz, 133.4 atalean xedatzen dena jarraituz ez da beharrezkoa kontsulta Publikoa egitea, proposatzen den diru-laguntzaren aldaketarik handienak barne antolakuntza direlako, jardura ekonomikoan eraginik ez daukalako eta hartzaileei betebeharrak gehiago ez dielako ezartzen, baizik eta, obligazioak betetzea errazten dielako.

LAUGARRENA.- Diru-laguntzen bete beharrak



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Diru-laguntzen Lege Orokorrak 38/2003 diru-laguntza lerro batek, gutxienez, izan behar dituen baldintzak erregulatzen ditu. Oinarri Orokor eta Oinarri espezifiko hauek gutxieneko baldintza guztiak betetzen dituzte. Besteak beste:

- Onuraduna izateko baldintzak.
- Onuradunen betebeharrak.
- Diru-laguntza emateko prozedura.
- Diruz laguntzen den gastua.
- Diru-laguntzaren zuriketa.

BOSGARRENA.- Plan estrategikoa

38/2003 Lege Orokorraren 8. artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoetako organoek, diru-laguntzen Oinarriak onartu aurretik, plan estrategiko batean zehaztu behar dira diru-laguntzen lerroak eta lortu nahi diren helburuak edo ondorioak. Kasu honetan, 2020ko aurrekontuak onartzean onartu zen 2020-2022 ekitaldietako plan estrategikoa. Bertan, aurreikusten dira diru-laguntza lerro hauek. Beraz, diru-laguntza lerroek aldaketarik ez dutenez ez da beharrezkoa plan estrategikoa aldatzea.

IRIZPENA

Lehena.- Proposatzen diren **OINARRI OROKORRAK** onartzea. 1. eranskin gisa atxikitzen zaizkio dokumentu honi.

Bigarrena.- AZKOITIKO ENPRESETAN EUSKARA PLANAK SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea. 2. eranskin gisa atxikitzen zaizkio dokumentu honi.

Hirugarrena.- AZKOITIAN EUSKARA IKASTEKO ETA UEUREN ETA EHUREN UDA IKASTAROETARA JOATEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea. 3. eranskin gisa atxikitzen zaizkio dokumentu honi.

Laugarrena.- AZKOITIAN ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA, WEBGUNEAK, PROGRAMA INFORMATIKOAK ETA PUBLIZITATEA EUSKARAZ EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea. 4. eranskin gisa atxikitzen zaizkio dokumentu honi.

Bosgarrena.- IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEI, TALDEEI ETA PERTSONEI DIRULAGUNTZA EMATEKO OINARRIAK, INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT PROGRAMA ETA JARDUERA EGITEKO OINARRIAK onartzea. 5. eranskin gisa atxikitzen zaizkio dokumentu honi.

Seigarrena.- GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea. 6. eranskin gisa atxikitzen zaizkio dokumentu honi.

Zazpigarrena.- AZKOITIKO UDALERRIAN KULTUR, KIROL ETA AISIALDI JARDUEREI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea. 7. eranskin gisa atxikitzen zaizkio dokumentu honi.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Zortzigarrena.- AZKOITIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK onartzea. 8. eranskin gisa atxikitzen zaizkio dokumentu honi.

Bederatzigarrena.- AZKOITIKO UDALERRIAN HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEN ALOKAIRU SOZIALA BULTZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK onartzea. 9. eranskin gisa atxikitzen zaizkio dokumentu honi.

Hamargarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunetan, Udaleko web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hamaikagarrena.- Informazio hau jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, behin betiko bilakatuko dira hartutako erabakiak, erabaki gehiagoren beharrik gabe.

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko ekainaren 18an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vazquez, Ainara Goenaga, Iraitz Otaño, Janire Igoa eta Jose Joakin Etxaniz.”

Ana Azkoitia andreak teknikarien artetik irten den behar bat izan dela azaldu die batzarkideei. Oinarri asko zaharkituta zeudela ikusten zela, eta oinarri espezifikoak bateratu nahi izan direla, oinarri orokorrei eginez erreferentzia. Dirulaguntzak eskatzeko eta zurtzeko erabiltzen zen dokumentazioa hobetzea zegoela ikusita, erraztu nahi izan dela esan du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Gardentasunean aurrera pausu bat emateko asmoz, prozedura egokitzapen honekin, bai onuradun eta baita udal teknikariek ere, laguntza eman aurretik eta ondoren aurkeztu beharreko egiaztagiriak sortzen dituzten zalantzak argitzen asko lagunduko dutelakoan, alde bozkatuko dugu.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Iraitz Otaño Mujika, Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Ane Miren Peña Larrañaga, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga, Angel M^a Etxeberria Ibarguren, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko Udalaren dirulaguntzen oinarri orokor eta espezifiko arautzaileak hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

8.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	Behin bet. aurr. Pres. def.	Baimendua Autorizado	Erabilia Dispuesto	Onart. oblig. Contraído	Ordainketa Pagado
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	17.499.691,03	7.787.919,16	6.427.571,15	4.566.173,73	4.485.078,05
	Behin bet. aurr. Pres. Def.	Onar. esk. Garb Dchos. Recs..	Bildut-garbia Recaudado	Kobr. Dagoena Pte. cobro	Itzulketak Devoluciones
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	17.499.691,03	5.606.364,56	4.557.637,01	1.034.254,63	11.402,24

13.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik aurkeztu.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta hamazazpi direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

ALKATEA

IDAZKARIA

**Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*

